

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Kirol Sariak banatu dizkie iazko pertsona eta erakunde aipagarrienei

Saritutako pertsonen artean Juan Peralta txirrindularia eta Maite Oroz futbolaria daude

Martes, 16 de febrero de 2016

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek Kirol Sariak banatu ditu gaur eguerdian; haien bidez, Foru Gobernuak iazko lehiaketa ofizialetako kirolari eta erakunde aipagarrienak saritzen ditu.

Oraingoan, saritutako pertsona eta erakundeak honako hauek izan dira: Juan Peralta txirrindularia, gizonezko kirolari onena; Maite Oroz futbolaria, emakumezko kirolari onena; Grupoempleo Pamplona Atlético, gizonezko talde onena; Anaitasunaren gimnastika erritmikoko atala, emakumezko talde onena; Javier Lorente, kiroletako teknikari edo agintari onena; Nafarroako Errugbi Federazioa, kirol-federazio onena; Oberena erakundea, kirol-klub onena; eta Corellako Udala, kirol proiektu berritzaile onena.

Bere [agerraldian](#), Barkos Lehendakariak aitortu du Nafarroako kirolak "osasun ona duela" saritutako pertsona eta erakundeei esker; haiek, "gure gazte askok, neska eta mutilek begiratzen duten ispilu dira". Haiei buruz ere hitz egin du Uxue Barkosek, eta azpimarratu du beharrezkoa dela "emakumeen kirolaren jarduera bultzatzea, berdintasuna lehen mailan jartzea ezinbestekoa baita, oinarrizko kiroletik hasita".

Sariak honako hauek jaso dituzte, hurrenkera honetan: Corellako alkate Gorka Garciak; Oberena erakundeko lehendakari Armando Redondok; errugbiko jokalaria Tekla Masoko, Antonio Bettik; Javier Lorentek; Grupoempleo Pamplona Atlético lehendakari Manuel Quijerek; Anaitasunaren gimnastika



Barkos Lehendakaria eta gainerako agintariak, sarituen alboan.



Uxue Barkos ekitaldian egindako agerraldian.

erritmikoko ataleko kide diren Ana Llorens, Nuria Mazo, Eylin Isabel Ortiz, Irati Enderiz, Raquel Cebrián, María Rosario Torresek eta Javier Redrado koreografoak; Maite Orozek; eta Juan Peraltak.

Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan egindako ekitaldian izan dira ere: Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznarez; Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilari Ana Herrera; Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari-kudeatzaile Ruben Goñi; eta Kiroletako zuzendariorde Primitivo Sanchez. Gogora ekarri behar da [1984tik](#) banatzen diren Kirol Sariak Nafarroan lehiaketako kirolean ematen diren ohiko sari nagusiak direla.

Saritutako pertsona eta erakundeen merezimenduak

Juan Peralta Gascón, Reyno de Navarra taldeko txirrindulariak, emaitza aipagarriak erdietsi zituen iaz jokaturako nazioarteko eta estatuko probetan; haiei esker, Nafarroako kirolari onenaren saria eskuratu du. Selektzioaren parte izanik, 15. sailkatu zen taldekako abiadurako Munduko Txapelketako proban eta 18. banakako abiadurako proban (Cambridge, Zeelanda Berria); 10. taldekako abiadurako Munduko Kopako proban eta 16. banakako abiadura (Cali, Kolonbia); 8. taldekako abiadurako elite mailako Europako Txapelketan eta 16. banakako abiadura (Grenchen, Suitza). Gainera, banakako abiadurako Espainiako Txapelketa irabazi du elite mailan, eta 1. taldekako abiadura (Galapagar, Madril); 14. izan zen taldekako abiadurako Munduko Txapelketa Nagusian eta 17. banakako abiadura (Saint Quentin en Yvelines, Frantzia) eta 11. taldekako abiadurako Munduko Kopako proban (Cali, Kolonbia).

Maite Orozi dagokionez, Athletic Clubeko futbolaria eta iazko Nafarroako kirolari onena, selektzioarekin 19 urtez azpiko UEFA Txapelketa irabazi zuen (Eslovakia), 17 urtez azpiko Europako Txapelketa 2015ean (Islandia), eta 17 urtez azpiko Europako Txapelketako Sailkapeneko Rona Elitea 2015 ean (Socchi, Errusia). Bere taldearekin, abenduaren 31n ligaren buru ziren.

Anaitasunaren Gimnasia Erritmikoko taldea emakumezko talde onena izendatu dute GRko (2. fase orokorreko aurretiazko jardunaldian) 1. mailako (Estatuko 1. maila) Taldekako Espainiako txapelkun geratu ondoren (Valladolid), eta Grupoempleo Pamplona Atlético gizonen talde onenaren saria eman diote Ohorezko Mailan (1. maila) jarraitzea erdietsi eta gero maila eusteko jokaturako finalean 2014-2015ean (Burgos).

Epaimahaiak Nafarroako Errugi Federazioko lehendakari Javier Lorente Doria 2015eko agintari onena izendatu du. Gaur egun, erakunde horretan 700 lizentzia daude, haietako erdia baino gehiago adingabeak dira, eta emakumeen errugbiaren, harrobiaren eta errugbi inklusiboaren sustapena azpimarratu behar dira. NUPeko eta Nafarroako Unibertsitateko instalazioak erabiltzeko akordio bat lortu du, eta errugbia Nafarroako Kirol Jokoetan berriz joka dadin. Gainera, taldeetarako kirol-babesleak lortu ditu, eta Europako teknikariek in trukeak egin dira entrenamenduen kalitate hobetze aldera.

Gainera, Nafarroako Errugbi Federazioa onena izendatu dute. Aipaturako merezimenduei, Nafarroako selektzioen emaitza batzuk eta estatuko selektzioetan jokalaririk nafar batzuek gehitu behar zaizkie, Saioa Jaurena Atxa, esaterako (15 Errugbiko selektzio nagusia. Esapa-Hong Kong), edo Ohorezko Mailan Ordiziako taldean jokatzeko duten lau jokalaririk nafarrak eta Nafarroako Infantilen Selektzioa, 1. postuan sailkatu zena 16 urtez azpiko infantil mailako Espainiako Txapelketan eta 18 urtez azpiko kadete mailako Espainiako Txapelketan.

2015ean 75 urte bete dituen Oberenak jaso du klub onenaren saria. 1941ean sortua peña eta dantza-taldearen inguruan, kirol-klub modura garatu da, eta honako atal hauek ditu: xakea, saskibaloia, eskubaloia, igeriketa, padela, pilota, squasha, taekwondo, tenisa, mahai-tenisa, futbola eta mendia. Iaz urteurren hori ospatzeko hainbat jarduera antolatu zituen.

Azkenik, Corellako Udalaren Kirol Batzordeak proiektu berritzaile onenaren saria jaso du "Corella, zure osasunerako taupadak" izeneko Kirol eta Osasuneko ekimenagatik.

Galería de fotos



Juan Peralta, gizonezko kirolari onena.



Maite Oroz, emakumezko kirolari onena.



Anaitasunaren Gimnastika Erritmikoko Atala, emakumezko talde onena.



Pamplona Atlético, gizonezkoen talde onena.



Javier Lorente, kirol agintari onena.



Nafarroako Errugbi Federazioa, federazio onena.



Oberena erakundea, kirol-klub onena.



Corellako Udala, kirol-proiektu berritzaile onena.